

Bilatu

ERAKUNDEA

HIZKUNTZA BALIABIDEAK

IKER  
EGITASMOAKJAGON  
EGITASMOAKEGITASMO  
INSTITUZIONALAKAZKUE  
BIBLIOTEKA

ARGITALPENAK

Hasiera

# Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu dira

2013-01-17 Egilea: Prentsa zerbitzua

Gaur, urtarrilaren 17an, Bilbon, EHUko Bizkaia Aretoan, Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu dira. Ekitaldian sariok antolatzen dituzten bi erakudeen ordezkariak izan dira: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana idazkaria; eta UPV / EHUrean, Iñaki Goirizelaia errektorea eta Xabier Etxaniz Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordea.

Hauek dira sarituak:

**Zientzia Esperimentalak:** Hutsik geratu da.

**Ikasketa Teknikoak:** **Arantxa Otegi Usandizaga.** Tesia: Hedapena informazioaren berreskurapenean: hitzen adiera desanbiguazioaren eta antzekotasun semantikoaren ekarpenak.

**Osasun Zientziak:** **Karlos Iburguren Olalde.** Tesia: Helduen ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdien analisisa Euskal Autonomia Erkidegoan.

**Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak:** **Iñaki Lazkano Arrillaga.** Tesia: Bigarren aukeraren auzia eta itxaropenaren izaera etikoa Krzysztof Kieslowskiren azken garaiko zineman.

**Giza Zientziak:** **Larraitx Zubeldia Arruabarrena.** Tesia: "Omen" partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa.



Ekitaldi berean, [Aiora Jakaren Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan liburua aurkeztu da.](#)

2008an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak "Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria" sortu zuten, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz. Sariak bi urterik behin deitzen dira, eta bost jakintza-arlotan banatzen dira: Zientzia Esperimentalak; Ikasketa Teknikoak; Osasun Zientziak; Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak; eta Giza Zientziak.


Sari hauen bitartez, UPV/EHUK eta Euskaltzaindiak euskarazko tesien ekarpen bikoitza goraiatu nahi dute, batetik jakintzaren arloa zabaltzen laguntzen dutelako, eta bestetik, euskararen normalizazioaren prozesuan ere guztiz lagungarriak direlako. Gaur, Bilbon egindako ekitaldian, hirugarren edizio honetako sariak jaso dituzten egileen izenak jakinarazi dira. Hauek dira:

**Zientzia Esperimentalak:** Hutsik geratu da

**Ikasketa Teknikoak:** Arantxa Otegi Usandizaga. Tesia: "Hedapena informazioaren berreskurapenean: hitzen adiera desanbiguazioaren eta

antzekotasun semantikoaren ekarpenak.” Tesiaren zuzendariak: Eneko Agirre Bengoa eta Xabier Arregi Iparragirre. Informazioaren berreskurapena (IB) erabiltzaile baten informazio-beharrak asetu duten dokumentuak bilatzean datza. Honela bada, IB sistemak erabiltzaileari dokumentu adierazgarriak, alegia, erabiltzaileak behar duen informazioa eduki dezaketean dokumentuak, topatzen lagunduko dio, betiere erabiltzaileak egindako kontsultan oinarrituz. IB sistema perfektu batek dokumentu adierazgarriak ez beste berreskuratu beharko litzuke, eta ez-adierazgarriak baztertu. Alabaina, sistema perfektuak ez dira existitzen. IB sistemek aurre egin behar dioten arazo nagusienetako bat kontsulta eta dokumentuen arteko parekatze-arazoa deiturikoa da: dokumentu bat kontsulta batentzako adierazgarria izan daiteke, nahiz eta bietan erabilitako hitzak guztiz berdinak ez izan, eta, alderantziz, dokumentu bat ez-adierazgarria izan daiteke kontsulta batentzat nahiz eta termino batzuk berdinak eduki. Tesi-lan honetan hizkuntzaren prozesamenduaren (HP) bidez, parekatze-arazoa arintzerik ba ote den aztertu da.

**Osasun Zientziak:** Karlos Iburguren Olalde. Tesia: “Helduen ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdien analisia Euskal Autonomia Erkidegoan.” Tesiaren zuzendariak: Ramón Querejeta Iraola eta Gabriel Txoperena Alzugaray. EAEn, hilero, 60 bat geldialdi berpizten dira. Hauetatik % 18,7 itzultzen da bere onera, % 5,25ak lortzen du ospitaleko alta eta % 3 dago bizirik, geldialditik urtebetera. Geldialdia izan duen gaixoaren biziraupenarekin gehien erlazionatu diren aldagaiak honakoak dira: lekukoa sanitarioa izatea; lekukoa sanitarioa ez izan arren, honek berpizten hastea; geldialdiaren etiologia kardiakoa izatea; hasierako eritimoa desfibrilagarria izatea. EAEnko biztanleek arazo honekiko heziketa behar dute. Geldialdia azkar antzemateko, deia azkar egiteko, eta kalitatezko masajea egiteko -anbulantzia iritsi artean- zailtasunak dituzte lekukoak. Prestakuntza hori ez dago EAEnko hezkuntza arautuan txertatua. EAEn desfibriladore-sare bat, eta hau arautzen duen legea badago. Hortaz, adituen erakundeek emandako oharrak jarraituz, sarea hedatzeko aukera badago. EAEn desfibriladore-sare bat, eta hau arautzen duen legea badago. Hortaz, adituen erakundeek emandako oharrei jarraituz, sarea hedatzeko aukera badago.



**Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak:** Iñaki Lazkano Arrillaga. Tesia: “Bigarren aukeraren auzia eta itxaropenaren izaera etikoa Krzysztof Kieslowskiren azken garaiko zineman.” Zuzendaria: Iñigo Marzabal Albaina Laburpena: Bigarren aukeraren auzia eta itxaropenaren izaera etikoa Krzysztof Kieslowskiren azken garaiko zineman aztertzen da tesi honetan, eta helburua honako hau da: Kieslowskiren azken filmak poloniar sasoiko zinemaren bilakaera luzearen ondorio direla frogatzea. La double vie de Véronique eta Trois Couleurs bilakaera horren gailurra dira. Haren zinemaren gako nagusiak identifikatzeaz gain (bigarren aukera, etika, halabeharra, itxaropena), horiek guztiak lotzen dituen logika berezia deskodetzen saiatu da. Obra gehienetan halabeharrendaren garrantzia azpimarratu izan dute adituek, baina, Lazkanoren ustez, aspektu batek baino gehiagok osatzen du poloniarraren zinemaren funtsa. Alde horretatik, errepikapena eta bigarren aukera halabeharra bezain garrantzitsuak izan daitezke. Horiek guztiak nola lotzen dituen aztertu nahi izan da lan honen bitartez.

**Giza Zientziak:** Larraitz Zubeldia Arruabarrena. Tesia: “Omen” partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa.” Zuzendariak: Kepa Korta Carrión eta Luis María Larringan Aranzabal. Tesi honek “omen” partikula du aztergai. Semantika eta Pragmatika arloetako hainbat teoria kontuan hartu dira, eta “omen” partikularen esanahi eta erabilera aztertzen ditu. Hala, bada, “omen” partikularen inguruko teoria estandarretik abiatuz, “omen” duen esaldiaren esanahi eta erabileri buruzko proposamen zehatza aurkeztu du Zubeldiak. Metodologiari dagokionez, bi eratako adibideak uztartu dira: batetik, modu artifizialean sortutakoak, eta bestetik, corpora batzuetatik ateratako adibideak. Era berean, pragmatika esperimentalaren arabera hainbat galdeketa erabili dira, eta dozenaka pertsonen erantzunak dituzte. Ondorioa hau da: “omen” partikulak hizlariaren informazio iturrira garamatza.

Hauek izan dira sarien aurtengo deialdiko epaimahaikideak:

Zientzia Esperimentalen jakintza-arloan: Txema Ezpeleta eta Jazinto Iturbe.

Osasun Zientzien jakintza-arloan: Alberto Loizate eta Inmaculada Gerrikagoitia.

Giza Zientzien jakintza-arloan: Julian Maia eta Miren Azkarate.

Gizarte Zientzien jakintza-arloan: Josi Basterretxea eta Patxi Juaristi.

Ikasketa Teknikoen jakintza-arloan: Lauren Etxepare eta Jose Ramon Etxebarria.

Bestalde, Maite Insaustik (epaimahaiburua), Xabier Kintanak (epaimahaiko buruorde) eta Jesus Mari Makazaga Euskara Zerbitzuaren zuzendariak ere osatu dute epaimahaia.



## Idatzi iruzkina

Izena (beharrezkoa)

e-mail (beharrezkoa)

Webgunea



1000 karaktere

Iruzkin berrien jakinarazpenetara harpidetu



Freskatu

**Bidali**

---

JComments

## **EGOITZA**

Plaza Barria, 15 E48005 Bilbo

**Tel.:** +34 944 158 155

**Faxa:** +34 944 158 144

[Harremanetarako](#) · [Lege oharra](#) · [Gunearen mapa](#)